

Karmelo Landa

Estatu arrotzaren zerbitzariak

E

raikuntza historikoak dira Estatuak, eta ez ideia edo teoria abstraktuen gauzatzea edo haragitzea; hori dela eta gertatzen da, hain zuzen ere, Zuzenbide Estatu edota Ongizatearen Estatu bezalako kontzeptu eder orokorren azpian, aldiz, zuzenbidearekin zerikusi gutxi duten Estatu baldar, arrotz eta zapaltzaileak jasan behar izatea. Estatu jakobino frantziarrak eta Estatu inkisidore espainiarrak gutxi dute zuzenbidetik eta demokraziatik, euskal herritarren begietatik begira behintzat. Hala eta guztiz ere, abstrakziorako eta metafisikarako joera nabarmena duen kultura eta pentsamendu ofizial europarrak errazegi kontsideratuko ditu *canon* demokratikoaren barruan, egiten dutena egiten dutela ere.

Estatu espainiarrari kostatu egin zaio, hala eta guztiz, *label* demokratiko ofizial hori eskuratzeko, eta berandu samar dabil denbora historikoetan. Hasteko, jaiotza ilun eta makabroa izan zuen, judu eta arabiarren aurkako eraso luzea tartean, baita Ameriketako lurralde zabalen konkista odoltsua eta ondorengo inperioko lurren galera progresiboa, penintsula iberiarren eremura murriztuta gelditu eta honi eusteko ere inkisizioa, gerrak eta herrien aurkako sarraskiak etengabe antolatuz, mendeak joan eta mende berriak etorri. Estatu espainiarrak ez du bere eraketa historikoan iraultza berri-tzailerik ezagutu; aitzitik, erreakziorik beltzena suertatu da beti garaile eta Estatu-kudeatzaile; Estatuaren gobernurako kasta meneratzaileak beti sortu dira transakzio eta txikimainen bidetik, eta horrela, garai historiko berri bakoitzeko, Estatua berriro ordez, aurreko instituzio, gobernatzeko modu, ideologia eta usadiorik ilun eta atzerakoienak betikotu egin ditu. Prozesu historiko zehatz horretatik sortu eta gaur ezagutzen dugun Estatu espainiarra halakoa da, beraz, bere aginte-erakunde guzti-guztiak ideologia eta jarrera benetan atzerakoi, zaharkitu, itxi eta anakronikoa nabarmentzen dutela.



INIGO AZKONA

Bestelako itxura eman beharrez, egia da Zuzenbide Estatuaren titulua eskuratu zuela Europako eta nazioarteko erakunde ofizialen eskutik, horretarako egokia zen Konstituzioaren testua moldatuz eta abar. Baina Europarako balio izan ziona ez zaio, aldiz, Euskal Herrirako baliagarri gertatu: Konstituzioa bera kuestionatua da euskaldunon artean, eta are okerrago, orain arte Estatu espainiarraren euskarri nagusia izan duen oligarkia bizkaitarra ere –garai bateko neguritikoez ordezkatzen zutena–, neurri handi batean disolbatu egin zaio eta eragin soziala galdu du ia erabat, frankismoaren aldeko apustu sutua egin eta gero, erregimen frankistarekin batera desakreditatu ondoren.

Baina Estatu horrek ezinbestean behar du gure artean bere zerbitzura jarriko den klase berri hori, eta aurrekoa galtzean, non eta agintari jeltzale bizkaitar batzuen artean aurkitu berri du errelebo preziatua. Paradoxa badirudi ere, jeltzaleen agintaritzak bizkaitarraren inguruan sortu den talde faktikoak eskaintzen dio gaur Estatu espainiarrari euskarria. Talde honek, Imazen edo Urkulluren ordezkaritza publikoaren azpitik, bermatzen du Estatuarekiko ituna

Estatu osoaren batasun politikoa. Horregatik, Imaz erretiratuta ere, kokatu nahi dute talde horretako partaide den Urkullu zuzendaritzan; horregatik adostu dute txosten politiko berria, erabakitzeko eskubidea desnaturalizatu eta Estatuarekin berarekin adostutako karrikatura bihurtuz; horretarako deitu zuen Imazek, krisiaren erdian, Erregaren etxera, Zapateroren telefonora eta enpresari espainiarren agintaritzara, lasaitasuna eskainiz. Hemen jokoan dagoena ez da, beraz, alderdi baten zuzendaritzaren osaketa. Beste hau da alternatiba: ala Estatu espainiar ilun hori lagundu, edo geure Estatu propiora doan bide historikoari hasera praktikoa eman. ■

Paradoxa badirudi ere, jeltzaleen agintaritzak bizkaitarraren inguruan sortu den talde faktikoak eskaintzen dio gaur Estatu espainiarrari euskarria. Talde honek, Imazen edo Urkulluren ordezkaritza publikoaren azpitik, bermatzen du Estatuarekiko ituna